

## Diru-iturriak

Lehenik eta behin, azpimarratu behar dugu gure zerbitzuaren prezioa aldakorra dela. Horretarako, adibide praktiko bat jarriko dugu, suposatuz pertsona batek lau zerbitzuak kontratatzea erabakitzen duela, eta hilabete batean bi aldiz joaten dela psikologora, beste bitan nutrizionistarengana, behin fisioterapeutarengana, eta, azkenik, hamabi aldiz entrenatzaile pertsonal batengana (astean hiru aldiz hilean lau astez). Kontsulta bakoitzaren batez besteko prezioa pixka bat ikertu ondoren, ikusi ahal izan dugu psikologo baten batez besteko kontsulta bat orduko 70 € dela, fisioterapeuta batena orduko 40 €, nutrizionista batena orduko 50 € eta, azkenik, entrenatzaile pertsonalaren saioa orduko 30€ izango lirateke. Guztira, zerbitzu hori kontratatu nahi duen pertsona batek 640€ ordaindu beharko lituzke zerbituz bakoitza indibidualki kontratatuz gero. Aldiz gure enpresarekin, eta balizko proposamenean adierazi genuen moduan, gutxiago ordaindu beharko luke lau zerbitzuak izateagatik.



- Cronoshare. "Descubre El Precio Por Sesión Para Un Psicólogo." CronoShare, 15 Oct. 2019, <https://www.cronoshare.com/cuanto-cuesta/psicologo#:~:text=A%20continuaci%C3%B3n%20te%20contamos%20cu%C3%A1nto,nivel%20de%20formaci%C3%B3n%20que%20posean>
- I. (2021, 13 julio). *Cuánto gana un fisioterapeuta (actualizado 2021)*. igaleno. <https://www.igaleno.com/blog/sueldo-fisioterapeuta/>
- Vallarelli, L. (2021, 17 mayo). *Descubre cómo calcular un precio aproximado para tu entrenamiento personal*. Cronoshare. <https://www.cronoshare.com/cuanto-cuesta/entrenador-personal#:~:text=Contratar%20los%20servicios%20de%20un,%E2%82%AC%20y%2035%20%E2%82%AC%2Fsesi%C3%B3n>
- Zaask. (2021, 28 octubre). *¿Cuánto cuesta un nutricionista? El precio de un nutricionista es 50€, en media, aunque en él influyen varios aspectos. Calcula los costes*. <https://www.zaask.es/cuanto-cuesta/nutricionista#:~:text=Si%20deseas%20contratar%20a%20un,%E2%82%AC%20y%20los%2080%20%E2%82%AC>

Hemen dira aditu bakoitzaren zergitzuak erabiltzeagatik ordaindu beharreko kuotak. Azpimarratu behar dugu hauen kostua %5ean igotzen dela gure profesionalak

desplazatu egin behar badira zerbitzua eskaintzeko. Gure prezioak, psikologoaren kontsultarengatik 42€ ordua, 31€ fisioterapiaren ordua, 30€ nutrizionistaren ordua, eta azkenik entrenatzaile pertsonala 19€ ordua izango ziren. Hauek, lehen aipatu dugun moduan, igo egiten dira profesionalak bezeroaren etxera desplazatu behar badira. Orduan, aurreko adibide berdina jarrita baina, kasu honetan bezeroaren etxera psikologoa eta entrenatzaile pertsonala badoaz, amaierako prezioa, 418'6€koa izango zen. Hau da, aurreko prezioa, %35 batean jaitsi dugu.

Hemen azaldu berri ditugun datuen taula:

<b>Zerbitzua</b>	<b>Beste enpresa batzuen batz besteko prezioa orduko</b>	<b>Body &amp; Balancen prezioa orduko</b>
<i>Psikologoa</i>	70€ *	42€ *
<i>Nutrizionista</i>	50€ *	30€ *
<i>Entrenatzaile pertsonala</i>	40€ *	19€ *
<i>Fisioterapeuta</i>	30€ *	31€ *
<b>TOTALA</b>	640€	418,6€ (desplazamenduaren kostua barne)

\*Amaierako emaitzetan aditu bakoitzarekin hilabatean bezeroak jasoko dituen saioak ere aplikatuta daude. (Adiide bat da, bezeroaren arabera saio kopuruak izango dira)

Bestalde, azaldu behar dugu gure zerbitzuak, funtsean, bezeroen hileko kuota edo harpidetzen bidez funtzionatuko lukeela. Bezeroak kontratatu nahi dituen zerbitzuen eta horiek erabili nahi dituen maiztasunaren arabera, bezeroak diru gehiago edo gutxiago ordainduko du, baina, betiere, integrala ez den beste zerbitzu bat erabiltzen badu baino gutxiago ordainduko du. Nolanahi ere, prezio aldakorrak ditugula ondorioztatuko genuke, hau da, oso kasu gutxitan ordainduko dute bi erabiltzailek gauza bera; izan ere, batzuetan, espezialistek beren etxera joateko eskatzen digute, eta beste batzuetan, berriz, nahiago izango dute kontsultara joan, gehiegizko % 5 hori ez ordaintzearen.

Bigarrenik, aipatu behar dugu kiroldegi eta gimnasio pribatuekin ere baditugula akordio batzuk, eta horietan, bezero berriak eramateagatik, erabiltzaile hori ordaintzen ari den kuotaren zati proportzionala eman beharko digute. Beste era batera esanda, bezero berriak eramaten ditugun zentro pribatuek, aldezturik, zentro pribatu

horrekin adostuta geratu beharko dugu, daramagun erabiltzaile berrien kopuruaren proportzioan komisio bat eramango dugula.

Lehen aipatu dugun bezala, bezeroek hileko kuotetan ordainduko dute gure zerbitzua, eta kuota horiek 3 hilabetetik gorako harpidetzaren ondoren, pizgarri gisa azken prezioaren % 5 jaitsiko dira. Nolanahi ere, pakete desberdinak edo promozio desberdinak sortuko dira, pertsona bakoitzaren interesen arabera; izan ere, pertsona batzuk bi hilabetez bakarrik nahiko dutelako zerbitzua, eta beste batzuk, berriz, sei hilabetez, adibidez.

Ondorioz, gure enpresaren diru-sarrera gehienak honako hauek izango lirateke: alde batetik, zerbitzuaren erabiltzaileen edo bezeroen hileroko harpidetza. Bestetik, bezero berriak eramateagatik komisio bat hartuko genukeen zentro pribatuena.

Enpresa sortzeko beharko dugun kapitala 15.000€koa izango da. Diru hori lortzeko, ekintzaileentzat bideratutako hainbat diru laguntza erabiliko ditugu, horien artean, herriko udalak lanpostu berri bat sortzeagatik eskaintzen duen diru-laguntza (1500€koa langile bakoitzeko) eta "Startup enpresa" izateagatik eskaintzen diren diru laguntzak erabiliko ditugu (honen bitartez sozietateen gaineko zerga %15era murriztuko da). Diru-laguntza hauetaz gainera, enpresa osatuko duten sozio kapitalek, 3500€ko kapitala jarriko dute.